



Guretzako kostuak, kapitalarentzako irabazia



ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Bizitza kostuak goranzko joera hartu duela esatea gauza jakina da. Elikagaien prezioen igoera herritar xumeengan eragin handia izaten ari da; gasolinaren prezioak ere gora eta gora; elektrizitate eta gasaren kostuak ongizaterako oinarritzakoak diren zereginak, hala nola sukaldean aritzea, etxea gutxieneko ongizate termikoan mantentzea, garbigailua erabiltzea, pribilegiatuentzako kontu bihurtzen ari dira. Etxebizitza duina izateko eskubidea, asetzen ez den eskakizun zaharra da. Azpimarratu behar da bizitza kostuaren igoera honek, inflazioaren bitartez neurtua, diru-sarrera murriztak dituztenak bortitzago kolpatzen dituela.

Aurreikuspen ekonomikoek diote inflazioa moteltzen joango dela. Bitartean, inflazio hazkunde honekin batera, sektore askotan enpresen mozkinak nabarmen hazi dira. Horrela azpimarratu du Europako Banku Zentralak: enpresa askok euren prezioak soldata nominalen igoeratik harago igo dituztela, eta, kasu askotan, baita energiaren kostuen igoeratik harago ere. Laburbilduz, hein handi batean enpresa-irabaziak izan direla bizitza kostu hazkorraren erantzuleak.

Bi digitutako inflazioa langileen aurkako enegarren kolpea izan da. Atzeraldi Handitik lan hitzarmen kolektiboetan sinatutako soldata hazkundeak, orokorrean eskasak izan dira, eta sarritan, soldata murrizketei buruz hitz egin behar-ko genduke, termino errealetan neurtuta.

OCDEk jakinarazi du bost langiletik batek buruko nahasmendua, depresioa edo antsietatea duela

Enpresek, lansariak ez handitzeko “krisiaren aitzakia” erabili izan dute beti, bereziki 2008tik aurrera, hainbat lan hitzarmen kolektibo urteetan berriro gabe mantenduz. Honi gehitu behar diogu 2002tik aurrera Moneta Bakarrak ez duela lagundu, langileek urte horretako eros ahalmen bera daukatelako, 20 urte geroago.

Dena den, guztia ez da diru kontua. Langileek pairatzen duten lan karga handitu egin da, enpresen onurarako. Lan erritmo hazkorra, teknologiaren bitartez enpresa kontrola sakona, agintzen diren zereginetan arreta oso handia exijitzea, lanpostuetan mugikortasun handia, enpresek emandako prestakuntza eskasa... lanaren kostu psikologikoa modu esponontzialean biderkatu da, bizitza maila duin bat bermatzen ez duen soldata eskas baten truke. OCDEk

jakinarazi du bost langiletik batek buruko nahasmendua, depresioa edo antsietatea duela eta gaur egun laneko segurtasunik eza eta presioa areagotzeak osasun mentaleko arazoak areagotzen dituela.

Bizitza kostuaren hazkundera eta osasun mentalaren okertzea funtzionamendu kapitalistaren ondorio zuzenak dira, enpresa askoren urteko balantzean positiboki eragiten dutenak. Okerrena da egoera hau normalizatu dela, pairatzen dugun errealismo kapitalista honetan errazagoa baita munduaren amaiera imajinatzea kapitalismoaren amaiera baino. Badirudi etsipena dela partida irabazten ari dena. Hala da?

Erresuma Batuan *Enough is enough* kanpaina martxan jarri dute eragile sozialek eta sindikatuek, krisiari aurre egiteko bost eskaera eginez: benetako soldata igoera, energia faktura murriztea, elikadura pobreziarekin bukatzea, etxebizitza duina guztientzat bermatzea eta aberatsak zergapetzea. Ez da proposamen iraultzailea izango, baina hasiera bat izan daiteke. Honi gehitzen badizkiogu sindikalismo eraldatzailearen hedapenak eta soldata murrizketarik gabeko lan jardunaldiaren murrizketak, aurreko paragrafoetan irudikatutako testuinguru iluna argitzeko aukera emango luke.

Ez dugu ahaztu behar kapitalaren eta lanaren arteko gatazkari buruz hitz eginen ari garela. Kapitala eta bizitzaren arteko gatazka. ●